



«Migratzaile batek ikusten badu hizkuntza benetan garrantzitsua dela, harekiko jarrera positiboa garatuko du»

Mario Zapata Soziologoa • 10



«Uste dut guztion artean berriro zubiak eraiki behar ditugula»

Gorka Urtaran Gasteizko alkatea • 2

EBk muga gehiago eraikitzea adostu du, iheslariei Libian eusteko

Saharaz hegoaldeko iheslariak Afrikan gerarazteko akordioa lortu dute EBko goi mandatariek, Malta • Beste adostasunik ez dute lortu, hainbat auzi irekiak badituzte ere; Trumpen politikari aurre nola egin, kasurako • 16

Harian 2

Nafarroan sare publikoan abortatzeko dekretuaren kontra egin du Madrilék

Nafarroako Parlamentuak Sexu eta Ugalketa Osasunari buruzko dekretua onartu zuen iaz, eta PPren gobernuak helegitea jarri du Auztegi Konstituzionalean. • 5

Urkulluk adierazi du Elizaren sexu abusuak «arazo publikoa» direla

Kontrol saioan esan du bere hitzak ez zirela zuzen jaso. Argitu du erabat gaitzesten dituela abusuak, eta Jaurlaritzaren alor horretako egitasmoak aletu ditu. • 8

Majarenasi alabarekin gehiago egoten utzi diote, baina ez dute aske utzi

Euskal presoak hiru laurdenak besteak baditu ere, Auzitegi Nazionalak ukatu egin dio askatasuna. • 7

«Erraza da Trumpen harresia kritikatzeko, baina EBren errefuxiatuekiko politika tamalgarria da»

Pablo Beramendi Irakaslea • 17

Kultura 26



«Orain dela gutxira arte, arteak bazuten balio bat; uste dut galdu egin dela»

Fran Lasuen Musikaria • 26

Mantangorri

• GEHIGARRIA



Lana diskriminazioz janzten denekoa

Emakume bat lanetik bota dute, Londresen, takoiak janzteari uko egiteagatik. Babes zabala lortu du, eta gaia parlamentura iritsi da • 38

2 **Harian**

Urtaranek konfiantza mozioari eutsiko dio, EH Bilduren eskaintzari entzungor eginda

Agintaldirako «akordio estrategikoa» negoziatzea proposatu dio koalizioak • Ahal Dugu-k eta Irabazik batzarretan erabakiko dute asteleheneko botoa

Jon Rejado Gasteiz

Gasteizko Udalak aurrekontuak onartuko ditu astelehenean, ezustekorik ezean. Udal gobernu osatzen duten kideen babesa baino ez du izango: EAJrena eta PSE-EErena. EH Bilduk akordio zabalago baterako proposamena egin zion atzo Gorka Urtaran hiriko alkateari; agintaldia amaitu arteko «ardatz estrategiko batzuk» adostea eskaini zion. Negoziatzen hasteko, gauza bakarria eskatu zion alkateari: konfiantza mozioa bertan behera uzteko. Ordea, alkateak eskaintzari muzin egin, eta asteleheneko hitzorduari eutsi dio.

Konfiantza mozioa irabaziko duen segurtasunarekin hasiko du Urtaranek asteleheneko saioa. EH Bilduk herenegun adierazitako jarrera aldaketak hori ahalbidetuko dio. Koalizioak iragarri zuen abstenitu egingo dela, alkateak negoziatzeko jarrerari uko eginda ere. Irabazik eta Ahal Dugu-k euren bozaren norabidea argitu behar dute; batzarretan zehaztuko dute, astelehena bitartean. Aipatu bi taldeek aurrekontuen bozketan izan ziren erabakitak errepikatuz gero –bi taldeak abstenitu ziren–, alkateak bozketan irabaziko luke, eta, horrekin batera; 2017ko aurrekontua onartu.

Urtaranek aldeko bederatzi boto izango ditu (EAJ eta PSE-EE), bederatzi kontra (PP) eta bederatzi abstentzio (EH Bildu, Ahal Dugu eta Irabazik). Egoera horretan, alkatearen kalitatezko botoa erabakigarria izango da, Urtaranen beraren alde. Horri esker, aurrekontuen luzapena saihestu, eta 2017ko aurrekontuak onartuko ditu alkateak. Dena den, aldaketaren aldeko indarrekin duen

harremana ahuldu, eta ataka zailen utziko du udal gobernu urtea amaitu bitartean.

EH Bilduko batzarrak onartutakoa ezagutarazi zion atzo goizean Larrionek Urtarari. Bi ildo ditu proposamenak. Batetik, 2015ean hasitako aldatetari «beste aukera bat» ematea; horretarako, agintaldirako «ardatz estrategikoak» adosteko proposatu dio



2015ean, EAJk botoak eskatu zizkigun, eta guk hitza betetzen dugu; dena den, ezin diogu aldeko botoa eman»

Miren Larrion
Gasteizko EH Bilduko eleduna

«Galtzaileen itunaren agonia agerian geratu da azken egunetan; alderdi horien artean kexak baino ez daude»

Leticia Comeron
Gasteizko PPko eleduna

Urtarari. «EAJk arrakala ireki du aldatetaren itsasontzian; guk arrakala konpondu, eta datoen urteetarako iparra finkatu nahi diogu». Bestetik, Larrionek jakinarazi dio akordioa gauzatu egin ez balitz EH Bildu abstenitu egingo dela konfiantza mozioan. «Alkateak erabaki beharko du: baka-rrik joanda lehenago heldu, edo urrunago joan, taldearen babesa-reakin».

Ardatz estrategikoak zehazteko, EH Bilduk hamabost orriko txostena aurkeztu dio Urtarari. Hiru eremutan banatu dituzte akordiorako proposamen nagusiak: ekonomikoak, sozialak eta iraunkortasunarekin lotutako

politikak. Agintaldi osorako proposamenak dira; orotara, 35 milioi euroren inbertsioak ekarriko lituzkete neurri horiek, Larrionek azaldu duenez.

Mozioa kentzeko eskaera

Proposamenaren gainean eztabaidatu ahal izateko, akordiorako bideak lantzeko, asteleheneko konfiantza mozioa bertan behera uzteko eskatu dio Larrionek Urtarari. «Negoziatu nahi badugu, asteleheneko hitzordua bertan behera utzi behar da». Areago, Ahal Dugu-ri eta Irabazik ere mahai horretan egoteko eskatu zion. «Marko bateratu bat elkarrekin eraiki, eta konfiantza berreskuratu nahi dugu».

Urtaranen balizko ezetza gertatuz gero, Larrionek iragarri du EH Bilduren jokabidea zein litzatekeen ere. «2015ean, EAJk botoak eskatu zizkigun Maroto alkatezatik kentzeko, eta guk hitza betetzen dugu; dena den, ezin diogu eman aldeko botoa». Hori da, hain zuzen ere, astelehenean gertatuko dena. EH Bilduren prentsaurrekoaren ostean, alkateak agerraldia egin zuen, konfiantza mozioarekin jarraitzeko asmoa berresteko. Are gehiago, Ahal Dugu-ri eta Irabazik-ri keinu egin zion, aurrekontuetako diru sailak negoziatzen jarraitzeko.

PPko eledun Leticia Comeron-ek gogor kritikatu zuen gertatutakoa: «Galtzaileen itunaren agonia geratu da agerian azken egunetan; alderdi horien artean kexak baino ez daude».

Bestalde, Irabazik eta Ahal Dugu-k ontzat jo dute EH Bilduren aldateta, baina lehenago egin ez izana kritikatu diote. Astelehena bitartean, euren jarrera argituko dute, batzarretan.



«Egoera honek ahulduta utzi du aldatetarako prozesua»

Gorka Urtaran • Gasteizko alkatea

Konfiantza mozioa aurkeztea defendatu du Urtaranek, «elkarrizketari beste aukera bat» ematea eta «hiria ez gelditzea» lortuko dutelako. Halaber, 2015ean abiatutako prozesua indartzearen alde egin du.

Edurne Begiristain Gasteiz

EH Bilduren akordio proposamena jaso berriren eta hura aztertze-ko ia betarik gabe erantzun die BERRIAREN galderei Gorka Urtaranek (Gasteiz, 1973). Aitoritu du azken asteotan konfiantza «hau-

tsi» egin dela koalizioarekin, baina txalotu egin du taldeak «jarrera aldatu» izana. Hala ere, udalaren egungo egoeraren erantzukizun nagusia EH Bilduri leporatu dio, «egun batetik bestera diskurtso aldatu» eta udal gobernuaren aurka «gogor» aritzeagatik.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

EH Bilduk iragarri du astelehenean konfiantza mozioaren bozketan abstenitu egingo dela, aurrekontuei bide emanda. Zein interpretazio egiten duzu?

Ospatzen dut EH Bilduk jarrera aldatzea eta orain arteko estrategia berriz planteatzea, ez baitzioan inora. Oso berri ona da jarrera aldatu izana, baina ez gobernuarentzat, hiriarantz baizik.

Hiriarentzat estrategikoak diren proiektuetan akordioak lortzeko eskaintza egin dizue. Nola jaso duzu?

Ez dugu astirik izan proposamena aztertzeko, duela gutxi jaso baitugu, baina ematen du oso orokorra dela. Ikusi beharko dugu zein den talde horrek hemendik aurrera duen jarrera. Azken asteotan, elkarrizketarako eta akordiorako eskaintza egin diet talde guztiei etengabe, aurrekontuen bidez aldatuta politikoa lortzeko. Orain arte ez da posible izan akordio hori lortzea, baina hemendik aurrera ematen du elkarrizketarako beste aukera bat zabalduko dela.

Zergatik?

Konfiantza mozioarekin bi helburu lortu nahi ditugulako; batetik, aurrekontuak izatea hiria gel-

dirik gera ez dadin, eta, bestetik, elkarrizketari beste aukera bat ematea. Eta hori da, hain zuzen ere, lortu duguna. Esango nuke EH Bilduk hartu duen jarrerarekin gauzak hobera joan daitezkeela.

Adostasunerako aukera zabalik izanda ere, uko egin diozu konfiantza mozioa bertan behera uzteari. Zergatik?

Konfiantza mozioa aurkezteko erabakia hartu genuen badakigulako aurrekontuak luzatzeak ondorio kaltegarriak ekarriko dizkiola hiriarri; zehazki, Gasteizek behar dituen inbertsioak bertan behera geratzen direlako. Beraz, atzeratzen baldin badugu edo bertan behera uzten badugu konfiantza mozioaren eztabaida, abiapuntura itzuliko gara berriro, hau da, aurrekontuen luzapenera, eta berriro egongo gara geldutane batean. Konfiantza mozioari eustea ez da jarrera irmotzat jo behar, bide hori proposatu dugu uste dugulako hiriarantzat garrantzitsua dela aurrekontu berriari izatea. Hortik aurrera, saiatuko gara lortzen akordio bat gainerako alderdiekin, eta hortik sortzen diren planteamenduak

aurrekontuetan txertatzen badi-tugu, primeran.

Aurrekontuak aurrera ateratzeko balio dizu konfiantza mozioak, baina, aldi berean, ez al du tenkatuko gobernuaren eta oposizioaren arteko harremana?

Ez du zertan. Egia da EH Bildurekin konfiantza apurtu egin dela azken asteotan, kontuan hartuta egin dituzten adierazpenak eta erakutsi duten jarrera zein izan den. Hala ere, uste dut guztion artean zubiak berriro eraiki behar ditugula. Nire proposamena hor dago, eta zintzoa da, eta beti esan diet, eta hala esango diet aurreantzean ere, beharrezkoak direla elkarrizketa eta akordioa. Hori da EH Bilduri eskaini diodana eta hemendik aurrera eskainiko diodana. Baina gauza bat kontuan izan behar dugu: bertan behera uzten badugu konfiantza mozioa, berriro itzuliko gara aurtengo aurrekontuen luzapenera, eta horrek izugarriko kaltea ekarriko dio hiriarri. Uste dut guztiz bateragarria dela alde batetik politika egitea hiria geldirik gera ez dadin, eta, bestetik, orain arte EH Bilduk hautsi duen elkarrizketarako

zubi hori berreskuratzea, akordioak lortzeko.

Egoera honek guztiak ez al du ahulduta utzi 2015eko ekainean hasitako aldatzeko prozesua?

Baietz esango nuke. Horregatik ez dut ulertzen EH Bilduren jarrera. Ezin dut ulertu zergatik hartu duen abendutik hona jarrera hori eta zergatik gehitu dizkion bere botoak PPren estratagiari. Ez dago ulertzerik. Baina nik ez dut atzerantz begiratu nahi, aurrerantz baizik, eta orain dagokiguna da EH Bilduk hautsi duen elkarrizketarako zubi hori berriro

«Konfiantza mozioa kentzen badugu, aurrekontuak luzatuko ditugu, eta horrek kalte egingo dio hiriarri»

«Guk ahalegin guztia egin dugu elkarrizketarako zubiak eraikitzeko eta gainerako taldeak eroso sentiarazteko»

eraikitzea. Elkarrizketa beharrezkoa dugu 2015ean hasitako aldatuta politikoa hori bermatzeko, eta, batez ere, 2019. urtean atzera begiratzen dugunean esateko bidaia honek merezi izan duela.

Zer egiteko prest dago udal gobernuak hemendik aurrera harremanak bideratzeko?

Orain arte egin duguna eta askoz gehiago egin beharko dugu. Ni azken momentura arte jardun naiz alderdi guztiekin hitz egiten, baina bereziki lehentasunezko harremana izan nahi genuen EH Bildu, Ahal Dugu eta Irabazirekin. Baloetsi egiten dut Irabazi eta Ahal Dugu alderdien jarrera, akordio bat lortu dugulako aurrekontuen inguruan eta abstenitu egin zirelako bozketan. Hori bera eskatzen diogu EH Bilduri. Espero dut hemendik aurrera elkarrizketaren bidez EH Bildurekin akordioak berreskuratzea, hiriarren onerako.

Zergatik iritsi gara egoera honetara? Norena izan da erantzukizuna?

Ziurrenik, denok dugu erantzukizunaren parte bat, baina nik oraindik ezin dut ulertu EH Bilduren jarrera aldatuta azken asteotan. Ordenantza fiskalak adostu ditugu, hainbat akordio egin ditugu... aurrekontuaren negoziazioari begira, testuingurua baikorra zen. Baina, egun batetik bestera, beren diskurtsoa aldatu dute, jendaurrean oso gogor aritu dira gobernuaren eta nire kontra, eta mugarrak bat sortu dute. Hor dago arazo honen sorrera, nire ustez. Hala ere, ez dut atzera begiratzea nahi, ez da kritikak egiteko garaia.

Autokritikarik egin al du gobernuak? Gubirangoan egonda, aurrekontu proiektua babes nahikorik izan gabe aurkeztu zenuen. Behar beste malgutasunez jokatu duzue akordioak lortzeko?

Adostasunak lortzeko ahalegina egin genuen. Besteak beste, proposatu genuen diru kopuru zehatz bat aurrekontuetatik kanpo uztea, gerora taldeekin diru sail batzuk negoziatzeko. Guk ahalegin guztia egin genuen gainerako alderdiak eroso sentiarazteko eta elkarrizketarako zubiak eraikitzeko.

EH Bilduk salatu du egoera honek guztiak PPri baino ez diola amasmatzen.

Horixe bera esan genien EH Bilduko ordezkariak: udal gobernuarekiko jarrerak PPri baino ez ziola laguntzen. EH Bildu azken aste hauetan konturatu da bere estrategia

PPren estratagiari gehitzea ez dela gomendagarria eta arriskutsua dela. Bertan behera utzi beharko genituzke horrelako jokabideak, PP delako irabazle bakarra. Hala ere, PP izango balitz garailea eta horrek onuraren bat ekarriko balu hiriarantz, ni ez nintzateke kezkatuta egongo. Araza da PPren estrategia ez datorrela bat Gasteizko interesekin, hiria blokeatu nahi duelako, *are eta okerrago orduan eta hobeto leloa eskuan hartuta*. PPren estrategia oso toxikoa da, hiriarren interesen aurka doalako eta suntsitzen duelako aldatuta politikoa.

2015ean, ezkerreko alderdiei esker alkatezta eskuratu zenuen. Damutu egin zara hartutako erabakiaz?

Ez, inolaz ere. Nik Miren Larrioni askotan esaten diot berak eskuaz bal jokatu zuela, baina nik neuk hartu nuen erantzukizuna eta egin nuen sakrifizioa oso handia izan zela. Apustu arriskutsua egin nuen, baina merezi zuen, bertan behera utzi behar genuelako Marroten diskurtso arrazista eta xenofoboa. Beste hiri erredu bat dut buruan, nahiz eta horren ondorioz lau urte gorriak ikusiz pasatu behar ditudan.

Duela urte eta erdi baino ahala go ala indartuago dago udal gobernuak gaur egun?

Asko egin dugu azken urte eta erdian, eta asko dugu egiteko. Badago denbora hiria aurrera ateratzeko. Aurrekontuekin askoz hobeto egingo dugu aurrera, eta ziur nago horrela jarraituz gero 2019. urtean denok esango dugula bidaia honek merezi izan duela.